

## **1. AKTA**

**GOBERNU BATZORDEA**ren bilkura 2003ko urtarrilaren 13an egin.

NON : Pasaia herriko Udaletxean.

NOIZ : Bi mila eta hiruko urtarrilaren hamahiruan.

BERTARATUAK: Joseba Xabier Portugal Arteaga j.  
Ricardo del Pozo Gil de Albornoz j. Eta  
Obdu Lorenzo de Dioz a.

Bilkura buru: Juan Carlos Alduntzin alkate j.

Gobernu Batzordearen bilkura egiteko elkartu dira goian izendatu ditugunak, Joseba Belaustegi Cuesta udal idazkariarekin batera, zehaztutako data eta tokian, aurretik bidali zaien bilera-deiari jarraiki. Angel Ouviaña Vidal zinegotziak ez du justifikatu etorri ez izana.

Bilkura buruak ikusi du batzordekide aski badagoela Gobernu Batzordea eratzeko eta bilkurari hasiera eman dio 13:00ean, aztergaien zerrendari helduz.

### **1.- 13/02. kontu eta fakturen zerrenda.**

Gobernu Batzordeak, bilkurara agertu diren zinegotzi guztien adostasunez, honako kontuak eta fakturak onartzea erabaki du:

Zk.: 13/02 zka

Zenbatekoa: EHUN ETA HAMABI MILA SEIEHUN ETA BI EURO ETA HAMAIIKA ZENTI-MO (112.602,11-) eurokoa.

### **2.- Gastuen likidazioa: Pasaia-Lezo Lizeoarekiko 2002ko hitzarmena aplikatu ondorengo**

Xabier Portugal Artega j.ak, Kultura eta Hezkuntzako zinegotzi-ordezkariek, 2002ko abenduaren 27ko txostenean proposatutakoaren arabera, bertaratutako zinegotzi guztien adostasunez,

ERABAKI DUTE

LEHENENGOA.- PASAIA-LEZO LIZEOARI 37.144 euro likidatzea, 2. seihilabetekoan izandako gastuengatik dagokiona, Udalak eta Pasaia-Lezo Lizeoak sinatutako hitzarmena betez.

Hori guztia, udal aurrekontuko A-2126/02 partidaren eta 05-481-00-02 baimenduaren kargura egingo da..

BIGARRENA.- Erabaki hau interesdunari jakinaraztea, honen aurka jar ditzakeen errekurtsioen berri emanez.

### **3.- Behin betiko onespena: “Arrandegi, 15-29” A. U. 2.05.03 Birpartzelatze-proiektuarena”.**

Alkate jaunak, 2002ko azaroaren 26ko ebazpen bidez onartu zuen hasierako onespena ematea “Arrandegi 15-29” 2.05.03 Hiri Eremuari dagokion Birpartzelatze-Proiektuari”. Onspena 2002ko abenduaren 9an Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarri zen eta ondoren jendaurrean jarri zen.

Jarritako epean, 15 egun, ez da alegaziorik aurkeztu.

Hirigintzako Kudeaketaren Erregelamenduko 110. artikulua eta ondorengoak kontuan hartuta.

Eta 1999ko uztailaren 12ko alkatearen dekretua betez, Gobernu Batzordeari eskumenak eskuordetzeari buruzkoa, honek, Hirigintzako Teknikariak 2003ko urtarrilaren 3an egindako ebazpen proposamenari jarraiki

#### ERABAKIA

LEHENENGOA.- Onartzea behin betiko “Arrandegi 15-29” 2.05.03 Hiri Eremuari dagokion Birpartzelatze-Proiektua”, Orbela, S.A.k aurkeztutakoa eta Jose María Abad letraduak 2002ko irailean idatzitakoa.

BIGARRENA.- Erabaki hau honako hauetan argitaratzea: Gipuzkoako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean, udalerrian zabalkunde handia duen probintziako egunkari batean eta Euskaldunon Egunkarian.

HIRUGARRENA.-Erabaki honen kopia bidaltzea, Gipuzkoako Foru Aldundiko Obra Publiko eta Hirigintza Sailera.

LAUGARRENA.- Birpartzelatze eragiketak jabetza-erregistroan inskribatzea administrazioko dokumentu bidez legeak agintzen duenaren arabera.

BOSGARRENA.- Erabaki hau interesdunei jakinaraztea, honen aurka jar ditzakeen errekurtsoen berri emanez.

- Gai-zerrendatik kanpo eta bertaratutako zinegotziek aho batez bertan sartzea berretsi ondoren erabaki hauek hartu zituzten:

### **4.- Ziurtapen bakarra berrestea: “Pasai Antxoko Manuel Azurmendi 8ko Itzala pabiloia botatzeko” obrarena.**

Gobernu Batzordeak, bilkuran diren zinegotzi guztien adostasunez, 2002ko abenduaren 24ko alkatearen ebazpena berrestea onartu du. Hau da, ebazpen horretan aipatzen den obra –ziurtapena:

**ETA  
EZ**



Zk.: Bakarra

Obra: "Pasai Antxoko Manuel Azurmendi 8ko Itzala pabeloia botatzea"

Obra zuzendaria: Iñaki Ormazabal Azkoitia j. (Udal arkitektoa)

Enpresa kontratistaren alde: ION MIKEL GARRAIOAK, S.M.

Zenbatekoa: HAMASEI MILA ETA LAUROGEITA HAMAHIRU EURO ETA HOGEITA LAU ZENTIMO (16.093,24 Euro)

Honako gastu xedatu hauen kontura: D-1770/02 eta 1771/02

### **5.- Ziurtapen bakarria berrestea: "Pasai Antxoko Manuel Azurmendi 5eko antzinako Miner Aroztegia eta zerbitzu biltegia botatzea" obrarena.**

Gobernu Batzordeak, bilkurara agertu diren zinegotzi guztien adostasunez, 2002ko abenduaren 24ko alkatearen ebazpena berretsi du, bertan ondoko obra-ziurtapena onartu da:

Zk.: bakarria

Obra: Pasai Antxoko Manuel Azurmendi 5eko antzinako Miner Aroztegia eta zerbitzu biltegia botatzea"

Obra zuzendaria: Iñaki Ormazabal Azkoitia j. (Udal arkitektoa)

Enpresa kontratistaren alde: ION MIKEL GARRAIOAK, S. M.

Zenbatekoa: BI MILA ZAZPIEHUN ETA HIRUROGEITA HAMAZAZPI EURO ETA HIRUROGEI ZENTIMO (2.777,61 Euro)

Honako gastu xedatu hauen kontura: D-1771/02

Eta aztertzeko beste gairik ezean, 14:00etan bukatu da bilkura. Udal idazkaria naizen aldetik agiri hau egiten dut bilkura buruaren oniritziarekin, eta biok sinatzen dugu eztabaidatu eta erabakitakoa jasota gera dadin.